

Multilateralismoaren onurak geopolitikan

ARGIA n askotan idatzi dugu politikariek eta hedabideek nazioarteko politikan erabili ohi duten moral bikoitzaz. Egunero aurki ditza-kegu adibide zakar ugari, baina, agian, AEBetako estatu idazkari John Kerryk Hiroshimara berriki egin duen bisita izan da guztien adierazle hoberenetako bat. Kasu horretan, egun historikoaz hitz egin dute masa komunikabideek. Ordea, ez dugu inolako kondena edota barkamen eskaera egiteko exigentziarik entzun edota irakurri.

Madril, Londres, Mosku, Paris, Bruse-la eta New York hiriek pairatutako atentatuak terrorista izendatzen ditugu, baina Hiroshima eta Nagasakiko erasoa baino terroristagorik imajinatzea kosta egiten zait. Zuzenean 200.000 hildako inguru bi bonbardaketetan, aldi berean beste milioika batzuek zauriak edo aldi luzerako ondorioak pairatu zituzten. Washingtonek izua eta suntsiketa barreiatu zituen Erresuma Batuarekin adostuta. Ondoren, AEBetako ejertzitoak Japonia okupatu, bertako konstituzio osoa idatzi, inposatu eta Asiako ipar-ekialdea nuklearizatu zuen. Ordu-tik, munduan arma nuklearrak erasotzeko erabili dituen herrialde bakarrak jarraitzen du esaten zein herrialdek duen eskubidea eta zeinek ez, arma nuklearrak izateko. Ironikoa litzateke ez balitz politika errearen aurpegi gordina.

Inperioaren bozeramaile diren mendebaldeko hedabide gehienentzat, gerra irabazten duenak edota indartsuena denak ez omen du terrorismo (sic) praktikatzeko. Bere bonbak humanitarioak eta okupazioak demokratizatzaileak dira. Area-go, komeni da beste inork ez izatea inperioak duen gaitasun militarra, ahal bada inork ez dezala mugatu NATOren botere absolutua, hori ha-labeharrez ona baita munduarentzat



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AsierBlas

Mendebaldeko hedabide gehienak eskolako “matoia”ren –harroputzaren– esanetara daude. Horrela bere botere absolutua egikaritu ahal izango du, ume guztiei ogitarteko zati bat –edo osoa– kendu ahal izateko nahi beste alditan

(sic). Patioko *matoi* edo harroputza-ren paradigma da.

Mendebaldeko hedabide gehienak eskolako matoiaren esanetara daude. Horrela bere botere absolutua egikaritu ahal izango du, ume guztiei

ogitarteko zati bat –edo osoa– kendu ahal izateko nahi beste alditan. Matoi gehiago egongo balira ordea, matoi nagusiaren boterea mugatuta egongo litzateke. Bakoitzak bere menpeko ikasleak izango lituzke, baina inork ez luke patio osoa kontrolatuko, eta batzuetan, matoiaren artean esparru liberatuak egongo lirateke ikasle batzuentzat, esparru horretan matoiak ez lirateke ausartuko ogitarteko zati bat lapurtzera, ez baitakite keinu horrek beste matoiak haserretuko ote lituzkeen. Kontrolatu gabeko esparru horietarako matoiaren arteko “araudi ez idatzia” adostu ohi dute. Horiei esker eta matoiaren ugaltze prozesuari esker, ikasle ahul batzuek subiranotasun esparruak topatzen dituzte matoiaren eremuetatik kanpo.

AEBetan ondo ezagutzen dute tirania ekiditeko boterea sakabanatzeak dituen onurak. Ipar Amerikako erregimen politikoa pisu eta kontrapisuen sistema da, non patioan matoi ugari aurreikusi eta horien arteko borroka arautzen duen. Baina, AEBek etxean nahi dutena ez dute munduarentzat nahi. Horri esker mendebaldeko herrialdeen artean ez da egon sezesiorik. Geroz eta indartsuagoa bada inperioa, orduan eta zailagoa da sezesio bat gertatzea bere baitan. Horregatik, bitxia egiten zait euskal abertzale batzuen artean zabaltzen ari den joera inperialista, alegia Mendebaldeari, patioko matoi nagusiari, koipea ematea zuzenean edota zeharka bere etsaien aurka-ko jarrera sustatuz. Baina, noizbait Euskal Herriak independentzia lortuko badu, hori izango da mundua multipolar bihurtzen ari delako. Inperioaren boterea geroz eta mugatuagoa da. Inperioak auzi ez idatzia hausten dituenean, sezesio prozesuetan ere bai, beste matoiak maizago aurpegiaratu eta oldartu egiten zaizkio. ■